# munduak guztiontzat beharko luke

## BIHOTZEZ ELKARTEA

Patakon eta Ane Pirata hondartzara joan dira arratsaldea pasatzera. Bertan ezagutu dituzte Garazi eta bere ama, Maite.







GARAZI, MAITEA, KONTUZ!
EZ DAKIZU IGERI, ALA?
BAI, BADAKIT. BAINA NIRE BIHOTZA EZBERDIN SAMARRA DA ETA AMAK BETI ESATEN DIT KONTUZ
HORI AMA GUZTIEK ESATEN DUTE!
BIHOTZ EZBERDINA DUZU?
BAI, HORRELA JAIO NINTZEN, NIRE BIHOTZAK ZAURI TXIKI BAT DAUKA.
BAI, ETA HORRELA JAIO NINTZENEZ EBAKUNTZA EGIN ZIDATEN BIHOTZEAN ZUK BEZALAKO BIZITZA EGIN AHAL IZATEKO.
BAINA ZAURIAK SENDATU EGITEN DIRA.


ETA MINA EMATEN AL DIZU BIHOTZEKO ZAURI HORREK?
EZ, EZ DIT MINIK EMATEN. BAINA NIRE BIHOTZA BESTEENA BAINO LEHENAGO NEKATZEN DA BATZUETAN.
PATAKONENA ERE, ZAHARRA DELAKO, NIREA BAINO LEHENAGO NEKATZEN DA. LASAIAGO IBILI ETA KITO, EZTA?


BAI NOSKI. HORI DA NIRE BIZITZAKO LEGEA: BAKOITZAK DAUKA BERE ERRITMOA.
BA KROKETARENA EGITEN NI BAINO BIZKORRAGOA ZARA, E?







## bihotzez

Kardiopatiak dituzten haurren familien elkartea da Bihotzez.



Beren helburua da kardiopatiak dituzten haurrei eta beren familiei laguntza eta babesa eskaintzea, egoera hori bizi duten bakarrak ez direla sentitu dezaten.



Erietxean, eskolan zein jendartean haur horiekiko sentsibilitatea zaindu nahi dute, toki bakoitzean dituzten beharrak egoki kudea daitezen.



Arragoeta kalea 3, 1ºB
48143 Areatza, (Bizkaia)
Telefonoa: 683.629.218
www.facebook.com/bihotzez